

Lur antzua

Aitzurrak lehorregi dagoen lur gogorrean jo du. Eguzkiak aurpegia ez belzteko zapia jantzita duen emakumeak beste aitzurkada bat jo du udaberriko soroan. Zapia handia da, eta loreduna, bere ama zenak zeuzkan arropa gutxien artean gorde nahi izan zuen bakarrenetakoa. Enegarren kolpea jo eta gero, zutitu da eta, tresna erortzen utziz, esku latzek gerriari heldu diote, keinu horrek azkeneko orduetako nekea desagerrarazi ahal izango balio bezala. Aurrera begiratu du. Ez dago inor inguruko soroetan.

Egun hartan bezala.


Argitu baino lehen atera da etxetik gaur ere. Negua joan da eta soroa prestatu egin behar du patata eta barazki batzuk etxeratu ahal izateko. Eustakioren baratzearen kontra, muga, kirten gogorreko aza-errenkada dago. Oraindik pare bat gelditzen zaio. Aza-hosto handi-dunak dira.

Egun hartako hostoak bezalakoak.

Lur antzua. Emakumea bezain antzua. Lur harritsua. Emakumea bezain gogorra.

Arnasa hartu eta atzera ere ekin dio jorrari. Eguzkiak bere itzalaren neurria erdira txikitzen duenean utziko dio lanari; orduan etxera bueltatzeko garaia izango du gizona ailegatzerako bazkaria prest eduki dezan. Gizon ona du, langilea, isila, gizajoa. Herri hartako gainontzeak bezain pobrea. Eustakiorekin lan egiten du harrobi zaharrean. Txikitako lagunak dira eta elkar bilatzen dute lantokira eta taberna-zulora joateko. Gaur igandea da eta arratsaldean ez dira lanera joango; horregatik bazkalduko du etxean. Bazkaria bero-bero zerbitzatu behar dio harrobitik iritsi bezain pronto. Ezin izango da berandutu.

Egun hartan bezala.



Ilustrazioa: Kristina Fernandez

Izaskun Etxeberría Zufiaurre

Txikitzen ari zaio itzala. Berehala abiatu beharko du. Soroari begiratzearekin batera, hurrengo bizpahiru egunetan jorran bukatuko duela pentsatzen du. Euri pixka bat egingo balu, sikiera. Behar baino denbora gehiago darama ur-tantarik bota gabe.

Egun hartan, orain ez bezala, lurra heze zegoen eta erraz egin ahal izan zuen zuloa.

Adobezko hormak dituen etxe xume batean bizi dira. Gizona eta bera. Haurrik ez. Urteak pasa diren arren, adobezko paretek ez dute sekula umeen negarrik ezagutu. Gizonak behin bakarrik aurpegiratu zion haurrik ezin munduratzearen errua. Alabaina, emakumeak ez du maite. Noizbait maite izan bazuen, maitasun zeritzon hura hilik dago. Denok dugu gure harria. Bere izebari entzuten ari zaiola iruditu zaio une batez. Denok dugu gure harria. Harri horrekin ikasi beharko dut bizitzen, bada. Jakingo al zuen bere izebak!

Bi aitzurkada gehiago jo eta etxe aldera abiatu da. Garaia da. Jaso du lanabesa eta buru gainean darama zumezko esportan, buztinezko potin txikiarekin batera. Bizilagun batek askotan errepikatzen dio ez dela ona hain pisu handia buru gainean eramatea, ez dela gaztea eta kalte besterik ez diola egingo; ez eramateko pisurik buru gainean.

Bizilagunak, lagunek, senarrak balekitez zer pisu daraman azkeneko urteetan ... Ez buru gainean, ez; barnean, alegia... Pisu handia eramatea ez zaio inporta ezer ez zeukan eta dena galdu zuen emakumeari.

Burutik ezin kendu dabilen egun hartakoa.

Egun hartan, emakumeak heze zegoen soroko bazter batean, inor ez zebilen larunbat goizeko ordu haietan, bere eskuekin egin zuen zulo handi bat. Lokaztutako esku berberekin, ahal bezala, oraindik haur-haurra ez zen izaki desitxuratu hura, bere erraietatik sortu zena, bi aza-hos-totan bildu eta lurperatu zuen, inori ezer esan gabe, ez-kontzeko datarekin bat ez zetorrelako.

Oroitzapenak hosto artean gorde ahal balira, sikiera.

Idazleari buruz...

Izaskun Etxeberria Zufiaurre, (Sakana, 1969); Badira urte batzuk Sakanatik abiatuak Idazle Eskolako bideari ekin niola. Geroztik, idazmenaren apar artean murgildu egiten naiz. Batzuetan, estu; gehienetan, lasai; baina beti zerumuga berriak ezagutuz.